

Epikaren abeslaria: el aedo ἀοιδός. Εἰς ῥαψῳδός. Pindarok esaten du Nemea II (v. 2) ῥαπτῶν ἐπέων ἀοιδοί “jositako olerti epikoen kantoreak”.

Irigoin-en teoria: Homeridek larruzko orriak josten zituzten, baina bilkariak egiteko ez kodexak. Bilkari horietan hasieran kopiatzen eta kontrsebatzen ziren Homeroren lanak.

Iliada-ren eta Odisearen arteko ezberdintasun batzuk:

Odisea mota askotako egoerak agertzen ditu, Iliadarekin erkatzen bada, jakina.

Odisea bidai eleberria da, zentsu batean, eta, beraz, gauzak, lekuak eta pertsonak aldatzen ari dira etengabe.

Egia esan, Alexandiarrei gehiago gustatzen zitzaion Odisea, Iliada baino.

Odisean, oro har, gauzak modu askoz ere errealistagoan deskribatzen dira, *Iliada*-n baino. Beitu, esate baterako, nola kontatzen den Nausikaa-ren pasarte *Odisea*-ren VI garren rapsodian.

Nire adimenak ondo ezagutzen du eta nire bihotzak susmatzen du;

Ilion sagaratua sunsituko duten eguna iritsiko da.

Priamo eta Priamoren herria, lizarrez egindako lantzekin armatuak.

Baina ez zait batre axola troiatarren zoria,

Eta Hekubaren berarena, eta Priamo erregearena,

Eta asko diren nire anai adoretsurena,

—etsaiek zaurituak errautsean eroriko dira—

zori horiek guztiek ez zaizkit batere axola, zuk pairatuko duzuna konparatuz,

brontzezko korazak dituen Akeoren batek zu negartsu eramango zaituenean,

eta, hortaz, askatasuna kenduko dizu

eta gero, Argosen, ohialak ehoko dituzu, beste emakume baten menpe,

edo Meseida edo Hiperea iturrira ura bilatzera joango zara,

oso atsekabetua, behar gogorak zure buruan eragin handia izango du-eta.

Eta, agian, norbaitek oihu egingo du, zuk negar egiten ikustean:

“Hori Hektorren emaztea zen,

Hektor, teukroen artean, gehien nabarmentzen zen gudaria zen,

Teukroak, zaldien hezitzaileak, Ilion inguruan borrokatzen zutenean”.

Horrela esango dute, eta atskabe berria sentituko duzu

esklabotzaz aska zintzakeen gizonarik gabe zure burua ikusiko duzenean.

Baina, hobe izango litzateke lur-meta batek nire hilotza estaltzea

zure oihuak entzutea edo zure bahiketa ikustea baino.

Iliada, VI 447-465.

Iliada, nahiz eta, oro har, gerlarien bizitzan etzanda izan, askotan bihotzezko pasarteak agertzen dira; esate baterako, VI garren rapsodian Andromaka eta Hektorren agurtzea abesten denean, edo XIV garren rapsodian Priamoren eta Akilesen negarra kontatzen denean.

Oro har esanda, Odisea-n sentimenduak gehiago jartzen dira agerian, Iliada-n baino.

Homeroren lanen ezaugarri batzuk:

KONPARAKETAK-SIMILIAK

Bi olerkietan konparaketak erabiltzen dira oso; orogorki, eguneroko bizitza kontuak ematen dira, batez ere, gertakari naturalak eta animalien erreinuarenak, baita lanaren edo ohitura soizalenak ere. *Iliadan* oso garrantsiak dira, zeren eta horrela gerratearen kontuak pixka bat moteltzen baitira. *Odisea* berez da era askotarikoa, kulturalki jakina.

Horrela, hain adoretuak, gau osoa zelaian geratu ziren eremuan;
han sute asko erretzen ari ziren.

Gau lasai batean izar disdiratsuak agertzen diren bezala
ilargi dirdiratsua inguruan,

eta harkaitzak, gailurrak eta aranak begi-bistan agertzen dira,
zeruan eterrezko eskualde zabala ireki egin da-eta,

astro eta argizagi guztiak beha litezke

eta artzainak poz hartzen du bihotzean:

sute kopurua zen hain handi,

Teukroek piztutakoa, Ilion aurrean sutan zeudena

Itsasontzien eta Jantoren korrentearen artean.

Mila sute sutan zeuden lautadan zehar,

Eta sute bakoitzean berrogeitahamar gizon biltzen ziren

berotzen eta argitzen duten sugarren argitan.

Eta zaldiak, gurdien ondoan jaten ari ziren,

olo eta garagar samurra,

trono ederra duen Egunsentiaren heldueraren zain zeuden.

Iliada VIII, 553-565.

HIZKUNTZA

Arkaismo asko erabiltzen dira

Greziar dialekto ezbedinetako formak eta egiturak erabiltzen dira, modu nahasi batean ere ager daitezke.

Bai sintasia bai hitzen urrenkera oso bakuna da. Metaforak oso gutxi dira, eta nahiko ohiturazkoak, eta termino berriak, berriz, dira gardenak eta argiak.